



BARREN
TOKIKOM




**Indarkeria matxistaren
izebergaren punta**


GIPUZKOA

Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko BARREN aldizkarian oker jarri genuen gutxieneko pentsioaren datua. Jarri genuen 1.800 euroko gutxieneko pentsioa eskatzeko manifestazioa egin zutela Eibarren, baina exijitzen duten gutxieneko pentsio hori 1.080 eurokoa da.

BARREN



Libe Iriondo Mugerza

2019ko azaroaren 21ean hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Manuel Egaña Egaña

2019ko azaroaren 22an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Elizkizunetarako Argitalpena

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edume Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugerza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Dendetako erakusleihoak belztuko dituzte bihartik astelehenera

Denda txikiek herrian duten garrantziaz ohartarazteko kanpaina jarriko du martxan Txankakuak asteburu honetan, *Black Friday* egunaren harira. Merkatariek erakutsi nahi dute zer gertatuko litzatekeen dendak itxiz gero. Beraien ustez, kaleak hustu egingo lirateke, argi gutxi izango genuke kaleetan eta segurtasun gabezia handituko litzateke. Azken batean, kaleko merkataritza txikia desagertzen bada, herria tristetuko da. Kanpaina honetan, beraz, denda txikirik gabeko Elgoibar islatuko dute, eta horretarako, dendetako erakusleihoak belztuko dituzte bihartik astelehenera bitartean. Dendak itxita dauden itxura emango dute, baina hala ere, dendak zabalik egongo dira ohiko ordutegian. Kanpaina honen helburua da denda txikiek bizi duten egoera zaila erakustea. Azkenaldian denda asko itxi dituzte herrian, eta Txankakuatik jakinarazi dute beste batzuk ere itxeko asmotan dabiltzala. Horregatik, merkatarien elkartetik bezeroak sentsibilizatu nahi dituzte, askotan ez direlako konturatzen zer daukaten, guztiz galdu arte.

Guass-eko aparkalekuan gordeta zeuden plaza gehienak libre geratu dira

Guass-eko aparkalekuan Txarriduna hotelak bere bezeroentzako gordeta zituen 25 bat aparkaleku libre geratu dira, beraz, edozein herritarrek aparkatu dezake. Hala ere, Maalako zubitik gertuen dauden lehenengo hiru plazak erreserbatuta jarraituko dute. Lurrean oraindik marra horiak daude, baina Udaltzaingoak bideratuta dauka gaia, eta ahal bezain laster egokituko dute aparkalekuaren lurra.



2019an urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte



80 urtetik gorako herritarrek bazkaria egin zuten eguaztenean Jubilatuen Biltokian, eta ekimen horren barruan, aurten urrezko ezteiak bete dituzten sei bikote omendu zituzten. Era berean, 101 urte dituen Felisa Etxabe ere omendu zuten. Jubilatuen Astea ospatzen dihardute egunotan, eta asteburuan ere izango dituzte ekintzak. Besteak beste, Deba ibaiaren inguruan bisita gidatua egingo dute bihar, Inma Murgertza biologoarekin.

Deba ibaiko zuhaitz batean kateatuta agertu zen zaldiak zeresana eman du



Deba ibaian, Andikano eta Maltzaga arteko bidegorrian dagoen lehen zentraletik gertu agertu zen zaldia, ustez hilda, baina biharamunean zenbait herritarrek abisua eman zuten, bizirik zegoen itxura hartu ziotelako. BARREN Udaltzaingoarekin jarri zen harremanetan, bai eta SOS Deiak zerbitzuarekin, Eusko Jaurlaritzako prentsa bulegoarekin eta Ertzaintzaren Eibarko bulegoekin ere, zaldi hori ibaitik ateratzea noren ardura zen jakiteko, baina ez genuen erantzunik lortu. Eguaztenean atera zuten zaldi hila suhiltzaileek uretatik.

Hasita daude Azitain-Maltzaga bidegorria egiteko lanak

7.860 kilo janari bildu dira Elgoibarren



Zortzi hilabeteko atzerapenarekin hasi dituzte Eibar, Maltzaga eta Elgoibar lotuko dituen bidegorri zatia eraikitze lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa departamentuak apirilean esleitu zituen bidegorria eraikitze lanak, eta udarako hasita egon behar zuten, baina "arazo administratibo" batzuk tarteko, atzeratu egin da obra. Eraikitzen ari diren zatiaren aurrekontua 5,1 milioi eurokoa da. Guztira bi kilometro inguru eraikiko dituzte eta lanak bi fase-tan egingo dira. Azitain-Maltzaga bidea Gipuzkoako bidegorri-sareari batuko zaio. Sare horrek jada 353 kilometro ditu eraikita eta gure lurraldeko eskualde guztiak lotzen ditu.

Sebas Etxanizen aldeko giza-katea egingo dute gaur iluntzean

Sebas Etxaniz preso elgoibartarra 76 urte bete ditu, eta Espainiako legediaren arabera, aske egon behar luke honezkero. Etxanizek, gainera, zigorraren hiru laurdenak beteak ditu. Elgoibarko Sarek Etxaniz berehalakoan aske uzteko eskatu du, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatzen dihardu. Gaur arratsaldean, adibidez, giza-katea egingo dute Kalegoen plazatik Maalara. Bukar-ran, 20:30 inguruan, Sebas Etxanizi berari bidaltzeko argazkia aterako dute Maalako parkean.



Joan zen asteburuan elikagai bilketa egin zen Elgoibarren, eta guztira, 7.860 kilo batu dira. Horrez gain, laguntza bonoak ere saldu zituzten, eta 6.575 euro batu dira. 73 lagun aritu ziren boluntario lanetan jatekoa biltzen, herriko lau saltokitan. Sanlo eskubaloi taldeak eta CD Elgoibarrek ere bat egin zuten ekimen honekin. Udalerrietan jasotako Bergarako Elikagaien Bankuko biltegira eramaten ari dira, bertan egingo baitute jaso denaren azken kontaketa. Ondoren, banaketa lan handiari ekingo zaio premian dauden familia guztien artean.

Talo tailerra egingo dute bihar, azken zapatuko ferian

Azaroko azken zapatuko feria egingo dute bihar, Udalak eta Debemen elkarteak antolatuta. 9:00etatik aurrera bertako baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, eta 11:00etatik aurrera, pintxoak dastatu ahal izango dira Sanlok jarriko duen txosnan. Oraingoan ere, Kale Kantariak taldeko kideek eguna girotuko dute 12:00etatik aurrera. Bestalde, 12:00etatik 14:00etara bitartean haur eta gaztetxoentzako talo tailerra egongo da, Lasturko Maitane Beristainek gidatuta. Feria eguna osatzeko, ganadu erakusketa egingo da, eguerditik aurrera, Aita Agirre plazan.

Baserrri bideen erabilera arautzeko ordenantza jendaurrean jarri du Udalak

Hirigintza Sailak baserrri bideen erabilera arautzeko ordenantzaren testua jendaurrean jarri du www.elgoibar.eus webgunean, behin betiko testua onartu aurretik ekarpenak egin ahal izateko. Abenduaren 13ra arte egongo da ekarpenak egiteko epea. Iritziak eta iradokizunak ondoko partaidetza@elgoibar.eus helbidera bidali daitezke, edo bestela, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) kokatuta dagoen Elgoibarko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu daitezke (Santa Ana kalea 2).



Euskarak lotu ditu

2001ean jarri zuen martxan Elgoibarko Izarrak Tertuliak programa, euskaraz berba egiteko zailtasunak zituztenei laguntzeko. Laguntza jaso nahi dutenen (bidelariak) eta emateko prest daudenen (bidelagunak) arteko hartu-emanean oinarritzen da programa. Urrian hasi eta ekainean bukatzen da, eta tarte horretan, astean behin elkartzen dira bidelagunak eta bidelariak, taldeka, ordubetez euskaraz egiteko. Gaur, sei talde daude, eta guztira, 44 lagunek parte hartzen dute: sei bidelagunek eta 39 bidelarik.

- AINARA ARGOITIA-

ARANTZA APRAIZ

“Animatuko nituzke denak izena ematera, izan euskara ikasten ari direnak zein euskaldunak, oso aberasgarria delako guztiontzat”



◆ Noiz eta nola izan zenuen Tertuliak programaren berri?

Ajangizkoa naiz ni, etxetik euskalduna, eta 24 bat urterekin alfabetatutakoa. D titulua ere atera nuen, teoriarik euskara irakasteko balio zuena. AEK-n ibili nintzen irakasle urteetan Bilbon,

Meatzaldeko taldeen arduraren. Elgoibarrera etortzerako, beraz, ezaguna nuen programa hau. Han ezagutu nuen. AEK-k barnetegia zabaldu zuen Kortezubin garai hartan, eta han inguruokoa ziren AEK-ko sortzaileek, Alberto Gabika eta Jesus Naberan gernikarrek eta Julen Kaltzada busturiarrek esan zuten barnetegia ondo zegoela, baina ondo legokeela ikasten ari ziren haiei barnetegitik kanpo euskaraz egiteko bidea ematea. Hala hasi ginen gu kua-drillan astean behin hiru-lau lagun hartzen. Astelehenetan batzeko ohitura geneukan kuadrillakook eta gurekin etortzen ziren besteak ere, euskaraz egiteko. Elgoibarrera orain 28 bat urte etorri nintzen eta Tertuliak programaren berri izan nuenean izena eman nuen, banuelako aurretik Busturialdeko beste esperientzia hori. 15-20 bat urte izango dira ordutik.

◆ Zer ezaugarri ditu zure taldeak?

Bost lagun gara eta Larren elkartzen gara, astean behin, ordu térdiz. Bat ez beste guztiak euskaltegian dabilzanak dira. Laugarrena erretiroa hartutako gizona da, Sallobenteko baserri batean jaihoa, umetan euskaraz zekiena baina kalera jaitsi zirenean galdu

zuen. Baina maila antzekoa dute denek. Saiatzen gara taldeak orekatuak izan daitezen, beti izaten direlako hitzontziagoak eta isilagoak, eta hitz egiteko ezintasunak dituztenen taldeetan horrek ekar dezakeelako batzuei berbak kortexoa ateratzekoarekin atera beharra izatea eta besteei hitza kendu behar izatea. Gu geu sekula ez gara isilik gelditzen.

◆ Zein da zure lana? Dinamizatzea? Zuzenketak egitea?

Ez, gure lana ez da zuzentzailearena, baina egia da taldekidetaren batek eskatzen badit, saiatzen naizela. Elkarrizketarik ez dit sekula eteten, hori bai. Bukaerarako gordetzen ditut zuzenketak. Baina ez da hori talde hauen funtzioa. Hori kalterako da, gainera. Hemen, hitz-jariora hobetzea da helburua, hobeto edo okerrago, euskaraz egitea.

◆ Zerbaiten beharra sumatzen duzu?

Konturatzen naiz askok ezer gutxi dakitela euskal kulturaren inguruko gaiez. Eta horren beharra ikusten dut. Beharbada, eskalduntzea ulertu dugulako euskara jakitearekin, baina kultur zaletzea ere garrantzitsua iruditzen zait.

◆ 15 urtean baldin bazabiltza, pentsatzen dut ez dela izango huts-hutsik besteei laguntzeko, ala?

Jakina. Beste mundu bat zabaldu dit esperientzia honek. Gainera, ni baino gazteagoak dira denak eta horrek asko aberasten nau. Animatuko nituzke denak izena ematera, izan euskara ikasten ari direnak zein euskaldunak, oso aberasgarria delako guztiontzat. Astean ordutxo bat da gainera; hutsa denbora.

ANE GOIKOETXEA

“Ez daukat euskara perfekturik, baina euskaraz egin dugu umetatik etxean, eta pentsatu nuen lagundu niezaiekeela euskara ikasten ari zirenei”



♦ **Ezaguna zaitugu, Ane, Elgoibarko euskalgintzan. Beti militante. Tertuliak programaren ardura daukazu orain, Imanol Larrañagarekin batera. Zer da Tertuliak zuretzat?**

Euskararen alde egiteko bide bat. Tolosaldekoa naiz ni sortzez, Gaztelukoa, eta etxetik datorkit euskaltzaletasuna. Akordatzan naiz, 1994an, lana laga ostean, Imanol Larrañagak Elgoibarko Izarren inguruan eman zuen hitzaldi batera joan nintzela eta garbi ikusi nuela nik zertan lagundu nahi nuen: euskara eta euskal kultura bultzatzen. Eta holaxe hasi nintzen Elgoibarko Izarren bueltan militatzen. Aubixara joaten hasi nintzen eta bileretan parte hartzen, eta gero etorri zen Tertuliak programan parte hartzea. Nik ez daukat euskara perfekturik, baina euskaraz egin dugu umetatik etxean, eta pentsatu nuen lagundu niezaiekeela euskara ikasten ari zirenei. Orain hogeitau urte hasi nintzen bidelagun lanetan.

♦ **Non biltzen zarete? Zenbat?**

Astean behin elkartzen gara gu, kafe baten bueltan. Badaude, hala ere, kalean pasiatzen ibiltzen diren taldeak ere. Talde bakoit-

tza independentea da, eta taldekideek erabakitzen dute non elkartu. Ordu bete inguru hizketan aritzen gara, eguneroko gauzetaz. Lau lagun gara gu taldean eta oso pozik nago. Oporretatik bueltan solte-solte topatu ditut. Aurrerapen handia egin dute eta horrek poz handia ematen dit niri. Astean ordubetexo bat egiten dugu elkarrekin, baina pila bat saiatzan dira, eta konturatzen naiz ordubete horrek askorako ematen duela. Kalean batzen garenean ere beti euskaraz egiten dugu orain gure artean. Eta neuretzat ere asko da hori. Niri ere kostatzen zaidalako lehenengo hitza beti euskaraz egitea, eta Tertuliak eta Euskaraldia moduko programek laguntzen dute ohiturak aldatzen. Eta beste gauza bat esango dizut: Sozializatzeko bidea ere ematen du programa honek. Afariak eta irteerak ere egiten ditugu, Mintza Egunera ere joan izan gara, eta ikasturte bukaeran beti egiten dugu zer edo zer berezia. Urte batean, Iñaki Perurena ekarri genuen Elgoibarrera. Oso giro polita sortzen da halakoetan.

♦ **Zer irizpideren arabera osatzen dituzue taldeak’?**

Hasiera batean adinari eta euskara mailari erreparatzen genien taldea osatzeko, baina orain, batez ere batzuen eta besteen ordutegien arabera osatzen ditugu taldeak, okupatuta bizi gara denok ere-eta.

PILI FREITAS

“Kosta egiten zait euskaraz hitz egitea, baina gustatzen zait, eta ahal dudan bitartean jarraituko dut Tertuliak saioetara joaten”



♦ **Zerk eraman zintuen euskara ikastera?**

Beharrak. Orain 14-15 bat urte hasi nintzen ni euskara ikasten, semei eskolako lanetan lagundu ahal izateko. Euskaltegian izena eman nuen eta PL1 eta PL2 perfilak ateratu, eta han, euskaltegian, animatu ninduten Tertuliak programan izena ematera.

♦ **Zergatik eman zenuen izena Tertuliak programan?**

Neurri handi batean, euskaltegian gomendatu zidatelako. Niri asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea eta esan zidaten askatzeko ondo etorriko litzaidakeela. Buruan informazio asko daukat, baina esatea kostatzen zait. Iruditzen zait euskara ikasi dugun askori gertatuko zaigula hori. Baina ez nago prest dakidana galtzeko eta horregatik jarraitzen dut Tertuliakideekin elkartzen. Horregatik, eta gustura egoten naizelako ere bai. Niri gertatzen zaidana da inguruan badauzkadala euskaldunak, baina kosta egiten zaigula euskaraz egitea. Ohitura kontuak dira.

♦ **Euskaraldiaren, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa berri-tzailearen, bigarren edizioa aurkeztu berri dute. Hartu al zenuen parte iaz?**

Bai, Belarriprest izan nintzen. Ez nekien aurten berriz egin behar zenik, baina iazkoa positiboa izan zen. Txapa jantzita erabili nuen egunetan jende gehiagok egin zidan euskaraz.

♦ **Non biltzen zarete? Zenbat?**

Gure taldean lau emakume elkartzen gara orain, astean behin. Ordu bete edo apur bat gehiago egiten dugu hizketan, tabernaren batean normalean.

♦ **Zer eman dizu Tertuliak proiektuak?**

Euskaraz trebatzeko oso baliagarria izan zait eta euskaraz hitz egin nahi baina erraztasunik ez duten guztiei gomendatuko nieke izena ematera. Oso pozik nago egindako ibilbideaz eta oso gustura joaten naiz. Beste batzuekin elkartzean beti ikasten dira gauza berriak, euskararen inguruan eta bestela ere bai, eta hori oso positiboa dela iruditzen zait.

♦ **Semei eskolako lanekin laguntzeko ikasi zenuen euskara. Zer beste eman dizu ahalegin horrek?**

Beste pertsona batzuekin hitz egiteko aukera. Lagun berriak eman dizkit euskarak. Kosta egiten zait euskaraz egitea, baina gustatzen zait, eta ahal dudan bitartean jarraituko dut Tertuliak saioetara joaten. Aste honetan, gainera, bi pertsona berri batuko zaizkigu taldera eta pozik nago. Ikasturte bukaeran afaria egiten dugu eta irteerak ere egin izan ditugu.

▶ ALBERTO GONZALEZ

MUGA TALDEKO KIDEA

6nemen9, Uler-600 eta Aterkings taldeetan ibilitako Alberto Gonzalez (Elgoibar, 1973) proiektu berri batean murgilduta dabil: Xabier Montoiaren *Anfetamiña* poema liburuari musika jarri dio, eta diskoa kaleratu berri du. Aspalditik zebilkion ideia hori buruan, eta azkenean lortu du gauzatzea. Muga taldea sortu du horretarako, musika ibilbide oparoa duten musikari beteranoekin. Hauek ditu taldekide: Bilboko rock alternatiboko eszenan ezagunak diren Iñigo Romera baxu jolea (Cancer Moon, Los Clavos, Cujo, El Inquilino Comunista, Basurita...) eta Iñigo Egillor bateria jolea (Gringo Arana, Billy Bao...) eta Itziar Beristain abeslariak. Egitasmoan J.A. Areta Goñi *Juxe* argazkilariak ere hartu du parte.

- AINHOA ANDONEGI -

“Rock lan bat baino zeozer gehiago egin nahi nuen”

♦ **Xabier Montoiaren ‘Anfetamiña’ poema liburuari musika jarri diozu Muga taldearekin. Nondik sortu da egitasmo hau?**

Aspaldiko kontuak dira. Oñatin Enpresagintza ikasten ari nintzela, ikasketa amaierako proiektu bat egitea egokitu zitzaigun. Oñatin kultura sustatzeko enpresa bat eratu behar genuen, eta hortan genbiltzala, bertako liburutegian Xabier Montoiaren *Anfetamiña* poema liburua ezagutu nuen. Orduetik izan dut liburua musikatzeko asmoa. Literaturaz eta rockaz hitz egiten denean beti aipatzen da Bukowski, baina euskaldunen artean nik Montoiaren *Anfetamiña* jartzen nuen erreferentziazat.

♦ **Zein berezitasun ditu ‘Anfetamiña’ poema bildumak?**

Lagunak, giro ezkorra, denbora, gorrotoa, kontraesanak... Maitasuna, lagunak, afektibitatea eta rocka dira liburuaren motorrak, eta horiekin beti identifikatu izan naiz. 80. hamarkadan Euskal Herrian Rock Radical Vascori punk deitzen zitzaion, eta horri lotzen zitzaion guztiak (indarkeria, gerra zikina, polizia...) ez nau sekula erakarri. Montoiak Londresen ezagutu zuen punka, eta jarraz punk bat izan da. Musikak badauka emozioek eta sentipenek duten barnerako joera hori, baina punk eta rockean jarrerak inportantzia handia du, hau da, zer transmitizen duen taldeak eta nola egiten duen. Stooges eta MC5 edo Australiako punk rock talde indartsuak (Radio Birdman, Beasts of Bourbon, ACDC...) be-



tidanik izan ditut gustuko. Soinu gordina lantzen dituzten taldeak dira.

♦ **Zein estilotako musika jarri diozue poema bildumari?**

Oraingoz musika ambientala eta elegantea geratu zaigula esan digute musika kritikoeak. The Cure, Low, Joy Division, Nick Cave edo Velvet Underground datorkie burura gure lana entzun dutenei. Proiektu multidiziplinarra egin dugu. Ni ere lanean gauza ezberdinekin aritzen naiz: kudeaketa, kalitatea, komunikazioa, formakuntza... Multidiziplinarra den lana egokitu zait, eta atsegin dut molde hori. Gorputzak eskatzen zidan bide hori bera musikara eramatea. Musika, poesia eta irudia. Hiru diziplina batu ditugu maila berean. Rock lan bat baino zeozer gehiago egin nahi nuen, zerbait desberdina.

♦ **Zein izan da emaitza?**

20 kanta inguru dauzkagu. Horietatik sei pieza errezitatu egiten dira. Gero, liburuan, The Doors, David Bowie, Lou Reed, Talking Heads eta antzeko taldeen aipamenak ere badaude. Hortaz artista horien bertsioak ere egiten ditugu. Dinamikoak izango dira gure emanaldiak.

♦ **Nola osatu duzu Muga taldea?**

Aspaldiko lagunak gara, eta lagun izatea oso garrantzitsua da talde bat osatzeko. Urte asko daramazunean, ego eta estimu

handiko jendea ezagutzen duzu, baina normalean gustatzen zaizun jendea apala izaten da. Kasu honetan, traturako eta harremanetarako jende erraza daukagu taldean. Eskarmentu handia dute guztiek, eta ni baino musikari hobeak dira. Ezin naiz kexatu. Niri lantaldea koordinatzea egokitu zait: Landu nahi nuena ondo transmititzea, jendearen inplikazioa ondo neurtzea, roll desberdinak zaintzea... Harritzekoa bada ere, lanean ikasitakoak eta eguneroko lan horrek bidea eman dio proiektu honi. Ez naiz hontaz bizi, baina eguneroko ogibideko martxa literatura, musika eta irudi mundura eramanez. Oso gustura gaude egindakoarekin.

♦ **Musika eta literatura uztartu dituzue. Ohikoa izaten da abestien letrak idazle bati eskatzea, adibidez.**

Guk bide hori alderantziz egin dugu. Hitzak eginda zeuden, aspaldi gainera, eta liburuak musikatu dugu. Kantuak amaitu genituenean jarri ginen harremanetan Susarekin (liburuaren argitalerlea) eta Montoiarekin. Xabierrengandik erantzunik onena jaso genuen: "Egin ezazue nahi duzuen". Musika eta kontzeptua asko gustatu zitzaizkion eta gainera, eskerrak eman zizkigun bere lan bat aukeratzeagatik. Sekula berrargitaratu ez den liburu bat da, 1983koa, Susak kaleratutako lehen alea...

♦ **Fermin Muguruzaren kolaborazioa izan duzue. Zein izan da bere ekarpena?**

Aspaldiko laguna da Fermin. Ferminen arlo asko landu ditu azkenaldian: *Guerra* antzezlan, *Black is Beltza* liburu, nobela grafikoak, pelikula... Azken batean, Ferminen garai hartako istorio pila dauzka. Poema ezagunena errezitatzeko eskatu diogu; *Bowiek ilea moztu zueneko*. Liburuarekin oso identifikatuta sentitu da betidanik eta baiezkoa eman digu. Urte gogorra izaten ari da Ferminentzat, lan askorekin dabil, eta lãigo anaiaren galera gogorra izan da. Eskertzea dagokigu bere laguntza eta proiektuari emandako babesa.

♦ **Nolako harrera izan du lanak?**

Harrituta gaude, batez ere, jendeak lanaren musikari buruzko kuriositate handia duelako. Madrilan jotzeko aukera sortu zaigu. Fiturren jotzeko! Eta, Donostiako Tabakalerakoak ere disketxearekin harremanetan jarri dira zeozer dotorea prestatu nahi dutela esanez. Lutxo Egia idazleak ere deitu digu, proiektua Bilbon mugitu nahi duela esanez. Interesa sortzen ari da.

♦ **Nolakoak izango dira zuzeneko emanaldiak?**

Orain urteko azken bi hilabete hauetan kontzertu txikiak egingo ditugu. Gaur Tolosako Arkupe jantzi dendan egongo gara, abenduan, Bilbon eta Bermeon, eta urtarrilaren 25ean, Markinako Uhagon kultur etxean lehen kontzertu konpletora emango dugu, formato multidiziplinarrean.

♦ **Eta, Elgoibarren?**

Momentuz ez dugu harremanik izan Elgoibarko Kultura Sailekoekin, baina gustatuko litzaidake han jotea. Gaur egun Oiarzunen bizi naiz. Hamar urte badira hemen bizi naizela. Leku ederra da bizitzeko, baina sozializatzeko ez dauka zerikusirik Elgoibarrekin! Elgoibarren jotzea berezia izango litzateke,

ónemen⁹ rekin Herriko Antzokian aspaldi egin genuen bezala. Leku egokiena da Elgoibarren gure ekitaldia egiteko. Momentuz, Iriondo tabernan jarri ditugu diskoak salgai.

♦ **Nola ikusten duzu euskal musikagintza?**

Beti iruditu zait oso mundu zaila, industria txiki bat dagoelako merkatu mugatu batean. Musikariak pasioa jartzen dute, baina disketxeek beste ikuspuntu bat dute. Gero, musika munduan, lagun itzelak daude. Auzolan antzeko bat dago gauzekin aurrera egiteko. Hori oso polita da. Gu proiektuarekin hasi ginenetik Gaztelupeko Hotsakekin egon gara harremanetan, eta beraien bultzada ezinbestekoa izan da guzti hau aurrera eramateko. Aipamen berezia egin nahi nuke hilero Sotoan gauzak programatzen diharduten Sinuöseko lagunei, eta baita urtero Gararock antolatzen dutenei. Zorionak eta eskerrak asko egiten duzuen lanagatik.

♦ **Nola iritsi zara zu musikagintzara?**

Solfeoa Txaro Etxeberriarekin ikasi nuen, eta baita pianoko lehen urteak ere. Ondoren, piano eskolekin jarraitu nuen, eta gerora, organoa ikasten aritu nintzen Donostiako kontserbatorioan. Osaba Jose Zubiaurre *Balle* zenak animatu ninduen gitarra jotzera, eta bere gitarra oparitu zidan. Amaren aldeko familia oso musikazalea izan da. Niretzat beti izan da zaletasuna musika. Gaztetan hara eta hona ibiltzen ginen kontzertuak ikusten, lagun berriak egiten... Kuadrilla giroan, 20 urte nituela, ónemen⁹ sortu genuen. Garai hartan konturatu ginen kritika bikainek ez daukatela zerikusirik salmentekin. Gero, Mendaroko Inarekin Uler⁶⁰⁰ sortu genuen; psikodeliarekin erlazioa zuen taldea. Askok ikasi nuen proiektuak iraun zituen bi urteetan. Izugarri maite ditut Ina, Cebri, Joe eta Leire. 2000. urtean Aterkings eratu genuen Markinako lagunekin batera. Sekula ez ziguten esan ondo jotzen genuenik, baina jendeak oso dibertigarriak ginela esaten zigun, Euskal Herrian zein Madril. New York Dolls, Dictators, Gluecifer, Eddie and the Hot Rods bezalako talde historikoeekin jotzeko aukera izan genuen. Orain berriz hasiko gara. Moonshakers neskez osaturiko Bilboko taldearekin lan berri konpartitua egingo dugu. Deskonektatzeko terapia ona da musika. Egun txar bat daukazunean, pianoa edo gitarra pixkat jo eta onera egiten duzu beti.

♦ **Berri Txarrak taldeak azkena eman du, eta, aldiz, Hertzainak edo La Polla bezalako taldeak eszenatokira itzuli dira. Nolako da egungo egoera?**

Orain aste batzuk Aitor Badiolak esan zuenarekin guztiz ados nago: jende gutxiago dabil diskoak erosten. Dena den arrisku gehiago ikusten dut zuzenekoetan, erreleborik ez dagoelako. 35 urtetik beherako jendea ez duzu aretoetan ikusten. Uste dut La Pollak ere BEC gaztetxe handi bat bilakatu zuela, aspaldian ez disko eta ez musikarik kontsumitu ez duen jendearekin. Aldi berean pozgarria da gero eta emakume gehiago ikustea taula gainean eta ikusle moduan. Erreferente onak dauzkagu emakumezkoetan, Mursego edo Anari esaterako.

Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkeztuko dute abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean

Euskaraldia 2018an egin zuten estreinakoz Euskal Herri osoan, 11 egun euskaraz lemapean. 220.000 lagunek hartu zuten parte, tartean, 1.804 elgoibartarrek. Datorren urterako bigarren edizioa prestatzen ari dira dagoeneko. 2020ko udazkenean izango da, azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Lehen edizioiko metodologia bera izango du bigarrenak, *ahobizi* eta *belarriprest* rolekin, baina izango da berrikuntzarik: bigarren edizioan, norbanakoekin batera, elkarte eta entitateek ere era aktiboan hartuko dute parte. Bigarren edizio horren nondik norakoak aurkeztuko dituzte martitzenean, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere. Musika Eskolako auditoriumean izango da aurkezpena, 19:00etatik aurrera.



Lehen edizioak lagatako ondorio nagusiak azaldu ondoren, bigarren edizioaren ezaugarri nagusien berri emango dute, eta Euskal Herri osoan irakurtzeko prestatu den manifestua ere irakurriko dute. Amaitzeko, talde erretratua aterako dute Aita Agirre plazan. Elgoibarko Euskaraldia tal-

dekoek egitasmo honekin bat egiten duten norbanako eta erakundeak gonbidatu dituzte aurkezpen ekitaldira.

Elgoibarko Euskaraldia Taldeak sustatzen du egitasmo hau Elgoibarren, Udalaren eta Danobatgroup taldearen laguntzarekin.

Santa Zezilia Eguna ospatu zuten joan zen astean Elgoibarren eta Mendaron

Santa Zezilia Eguna izan zen joan zen azaroaren 22an, musikarien eguna, eta hori ospatzeko hainbat musika ekitaldi antolatu zituzten Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibar Ikastolako umeak, esaterako, kalejiran joan ziren barikuan ikastolara. Kalegoen plazan hasi zuten kalejira, eta kantu kantari joan ziren ikastolaraino. Musika Eskolako BetiSua txarangak ere egin zuen kalejira, eta Elgoibarko Udal Musika Bandak Santa Zeziliako kontzertu berezia eskaini zuen domekan Herriko Antzokian. Mendaron, bestalde, hainbat kontzertu eta dantzaldi egin zituzten Musikalean jaialdiaren barruan. Mendaroko Ameikutz musika eskolak eta Euskal Dantza Eskolak antolatu zuten jaialdia, eta guztira 80 bat lagunek hartu zuten parte: Abesbatzetako ikasleek (40 bat lagun), trikitixa eta txistu taldekoek (18 bat guztira), eta euskal dantza taldeko ume nahiz nagusiek (30 bat lagun).





Abenduaren 12an zabalduko dute Aita Agirreko taberna

Noel Isasik kudeatuko du Aita Agirre Kulturguneko taberna, eta, ondo bidean, abenduaren 12rako zabalduko du. Aita Agirre Kulturguneko tabernaren kudeaketa esleitzeko lehiaketa publikoak jarri zuen abian Elgoibarko Udalak, eta lehen deialdiak ez zuen arrakastarik izan, baina bigarengora lau hautagai aurkeztu ziren. Horietako bat zen Noel Isasi Leniz. Gainerako hautagaiek ez zituzten Udalak eskatzen zituen dokumentuak aurkeztu eta Isasiren hautagaizta izan zen aurrera egin zuen bakarra. Joan den azaroaren 19an sinatu zuen Elgoibarko kultur kafea kudeatzeko eta ustiatzeko kontratua. Bi urterako kontratua da, eta urtero 7.272,1 euro ordaindu beharko ditu kudeatzaileak. Taberna honen berezitasun nagusia da hilean behin kontzertu bat edo ikuskizun eszeniko bat antolatu beharko duela, eta tabernaria bera arduratu beharko dela ikuskizun horiek kontratatzeaz. Isasik aurreratu duenez, dagoeneko lotuta dauka lehen emanaldia: Sotano 21 talde elgoibartarraren kontzertua izango da estreinakoa, abenduaren 20an. Herriko musika taldeekin eta kultur jardueretan dabiltzan lagunekin batzeko asmoa du Isasik, eta ikuskizunak antolatzeko Kultura Sailarekin ere elkarlanean arituko dela argitu du.

Inaugurazioa abenduaren 12an

Abenduaren 12an zabalduko dute taberna, 19:00etan. Ordutegiari dagokionez, asteleheneetik eguenetara goizetik 22:00ak arte egongo da irekita, eta bariku eta zapatuetan goizaldeko 1:30ak arte. Domeketan, aldiz, goizez bakarrik. Jatekoa ere emango dute tabernan, besteak beste, pintxoak, anoak eta plater konbinatuak (momentuz). Arlo gastronomikoan Jose Rojano sukaldari elgoibartarraren aholkularitza izango du Isasik. Las Palmaseko (Kanaria Handikoa) Santa Catalina hotelean dagoen La Terraza jatetxeko sukaldari burua da Rojano. Bazkari edo afari bereziak ere emango dituztela jakinarazi du, "dela kintada baterako edo urteko egun berezietarako". Talde handientzako bazkariak izango dira.

Kuadrilla Eguna ospatuko dute bihar

Elgoibarko Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak eta Berdintasun Sailak Kuadrilla Eguna antolatu dute biharko, herriko gazteekin elkarlanean. Herriaren erdigunean gazteen presentzia areagotzea, eta gazte lokaletan biltzen diren neska-mutilen arteko harremanak "estutzea" da biharko festaren helburu nagusia. Mausitxa txarangaren kalejira, musika ekitaldiak eta Maalako parkean egingo duten bazkaria izango dira prestatu duten egitarauko ekitaldi nagusiak. Egitarau guztia agendan kontsultatu dezakezue.

Hezur Museoa zabalduko dute abenduaren 7an

Jose Julian Marquez elgoibartarrak historiaurreko tresna eta hezurrekin osatu du Hezur Museoa. 700 bat pieza jarri ditu ikusgai, eta denak berak eginikoak dira. Pieza originalen erreplikak dira guztiak, harrizkoak, burdinezkoak eta hezurrezkoak. Artetxe auzoan dagoen lokal batean egokitu du museoa, Mufomi fosil eta mineralen museoarekin parean. Abenduaren 7an inauguratuko du museoa, 10:00etan. Goiz eta arratsaldez irekiko du zapatuan, eta domekan, aldiz, goizez. Museoaren bisita gidatua egingo du, eta hainbat tailer egiteko aukera ere izango dute bertaratzen direnek, historiaurreko bizimoduko ohiturak ikasteko. Besteak beste, sua nola egiten zuten ikasteko aukera egongo da, eta baita lan tresnak egiteko modua ere bai. Historiaurreko gizakiaren bizimodua nolakoa zen azaltzea da Marquezen nahia.



Jokin Muñozek hirugarren egin du Gipuzkoako Maratoi Txapelketan, bere marka onduz

Zurich Donostiako Maratoiaren 42. edizioa jokatu zuten azaroaren 24an, Donostiako kaleetan. 2.664 lagun lehiatu ziren 42 kilometroko proban eta Kenyako Collins Kipkorir (2:11:57) eta Portugalgo Susana Cunha (2:36:09) izan ziren azkarrenak. Aurreko edizioetan bezala, Donostiako maratoiaren barruan jokatu da aurten ere Gipuzkoako Maratoi Txapelketa, eta duela bi urte moduan, hirugarren postua eskuratu zuen Jokin Muñoz mendarorak. Sailkapeneko seiugarren postua eskuratu zuen Joseba Diaz azkoitiarrak irabazi zuen Gipuzkoako Maratoi Txapelketa, 2:24:08ko denborarekin. Muñozek bere marka pertsonala ondu zuen, maratoia 2 ordu, 28 minutu eta 13 segundotan osatuta. Kilometroa 3:31ko erritmoan egin zuen, batez beste. Denbora horrekin sailkapen nagusiko hamargarren postua eskuratu zuen. Meritu handiko emaitza da, aurten aurreko urteetan baino atleta atzerritar gehiago lehiatu baitziren eta horien artean antolatzaileek kontratatutako bost atleta afrikarrak. Lau hilabeteko prestaketaren ostean, Jokin Muñoz pozik dago Donostian lortutako emaitzarekin. Batez ere maratoian izaten ari den bilakaerarekin dago pozik, distantzia zail honetara ondo moldatzen ari dela uste baitu. Korritu duen bosgarren maratoia izan da honakoa, eta denborak onduz joan da orain arte. Iaz egin zuen Valentziako maratoian zuen orain arteko markarik onena: 2:30:47. Bi minutu baino gehiago jan dizkio marka horri, eta berak dioen moduan "mundu bat da hori maratoian". 2017an Donostiako Maratoian egin zuen denborari ere zazpi minutu jan dizkio aurtengoan. Urteetako ahalegina eta sakrifizioa direla sekretu bakarra dio, eta leiorik ez izatea. Entrenamenduak lasaiago hartzea da orain bere asmoa eta Xabier Muriel entrenatzailearekin batera erabakiko du hurrengo urterako egutegia. Urtean maratoi bat egitea da bere asmoa. Zazpi elgoibartarrek amaitu zuten Donostiako maratoia, eta Igor Torres izan zen horietan azkarrena (2:38:44). Elgoibartarren emaitzak *barren.eus-en*.



Argazkiak: Irati Iñurrieta

Kepa Arrizabalaga eta Gorka Lizarralde, Gipuzkoako txapelkunorde



Gutxigatik izan bada ere, txapelik gabe geratu dira Kepa Arrizabalaga eta Gorka Lizarralde. Lagunak pilota eskolako bikoteak paleta gomako Gipuzkoako lehen mailako finala jokatu zuten, azaroaren 24an, Altzako frontoian. Elgoibartarrek Real Sociedad taldeko Antxordoki eta Martikorena izan zituzten aurkari finalean, eta 25-22 galdu zuten. Finala galdu arren, Arrizabalagak eta Lizarraldek denboraldi itzela jokatu dute, bigarren mailatik igo ostean aurrenekoz jokatu baitute goreneko mailan. Lehen faseko ligaxkan partida guztiak irabazita sailkatu ziren kanporaketa fasera, eta Mutrikuko bikotea kanporatuta sailkatu ziren finala jokatzeko.

18,79 milioi euroko udal aurrekontua

Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak 2020rako aurrekontua onartu zuen eguaztenean, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. 2020an 18,79 milioi euroko aurrekontua izango du, iazkoa baino %3 handiagoa, hain zuzen ere. EH Bildu abstenitu egin zen bozketan, eta Elkarrekin Podemosek kontra bozkatu zuen.

- AINHOA ANDONEGI -

Elgoibarko Udalak 18,79 milioi euroko aurrekontua izango du datorren urtean, iazkoa baino %3 handiagoa, hain zuzen ere. Inbertsioen atalera 4,38 milioi euro bideratuko dituzte, aurreko urtean baino %4,92 gehiago. Berrikuntzen artean, herriko merkataritza sustatzeko 30.000 euroko partida aurreikusiko dute, Berdintasun Sailaren aurrekontua %16 handitu da, eta Urazandiko obrak iraun bitartean auzotarrentzako autobus zerbitzua jarriko dute.

Lehen balorazioan, EAJk aurrekontuak azaroko osoko bilkuran onartu izanean jarri du azpimarra, horrek Elgoibarko Udalaren "kudeaketa zorrotza" erakusten duela arrazoituta. EAJk esan du "elgoibartarrentzat Elgoibar hobeto bat" egiten jarraitzeko

nahiari erantzuten diotela aurrekontuek. "Sozialki aurrerakoa, ekonomikoki fidagarria eta politikoki egingarria eta ilusionagarria" den proiektu politikoa dutela nabarmendu dute. "Herritarren ongizatea bermatzea da gure lehentasun nagusia, ekonomia eta enplegua bultzatzearekin batera, Elgoibar eraberrituz, gure nor-tasuna zainduz eta herritarrekin hartu-emanen oinarritutako gobernantza sustatuz". Gobernakude duten PSE-EEko zinegotzi Fernando Suarez ere pozik agertu da onartutako aurrekontuekin. Suarezek esan du sozialistek hauteskunde programan jaso zituzten proiektu gehienak jasota daudela Elgoibarko Udalaren 2020rako aurrekontuetan. "Dena ezingo da datorren urtean egin, baina iruditzen zaigu ondo ari garela".

SARRERAK.....

Zuzeneko zergak	3.587.707,97
Zeharkako zergak	250.000
Tasak eta bestelako sarrerak	2.832.360,52
Transferentzia arruntak	9.789.000
Ondare sarrerak	12.000
Inbertsio errealen salmenta	100.000
Kapital transferentziak	550.000
Aktibo finantzarioak	3.000
Pasibo finantzarioak	1.673.894,56

Sarrerak guztira 18.797.963,05

GASTUAK.....

Pertsonal gastua	4.640.985,50
Ondare arrunten eta zerbitzu erosketak	6.947.574,79
Gastu finantzarioak	200
Transferentzia arruntak	2.651.315,46
Kreditu globala	175.000
Inbertsio errealak	4.382.887,30
Kapital transferentziak	0
Finantza aktiboak	0
Finantza pasiboak	0

Gastuak guztira 18.797.963,05

AURREKONTUAK, SAILKA

PERTSONAL GASTUA	4.640.985,50
KULTURA SAILA	1.974.323
GIZARTE EKINTZA	1.102.217,30
HIRIGINTZA SAILA	8.124.20,79
GAZTERIA SAILA	393.300
BERDINTASUN SAILA	78.000

* Udalbarrian, Udaleko barne antolakuntza sistema berrian, murgilduta dago Elgoibarko Udala. Sistema honetan Udalaren konpententzia edo sail guztiak hiru arlo nagusitan batzen dira: Herritartasuna, Antolakuntza eta Lurraldetasuna.

GASTU ETA INBERTSIO NAGUSIAK, SAILKA

Gobernu taldearen arabera, aurrekontua udalerraren etorkizunerako erronka nagusienak biltzen dituen dokumentua da. Erronka horiei hiru arlo nagusitan banatuta emango die erantzuna Udalak: Herritartasuna, Antolaketa eta Lurraldetasuna. Ikus ditzagun arlo bakoitzeko diru partida nagusienak:

LURRALDE TASUNA

Inbertsio nagusiak

- Igerileku berriak	2.300.000
- Urazandi auzorako igogailuak	660.000
- Herriko kaleen mantentze lanak	350.000
- Igerileku berritik Mekarako igogailua	300.000
- Parte-hartze bidezko proiektuak	200.000

Diru-laguntzak

- Fatxadak konpontzeko	75.000
- Gazteek etxebizitzak alokatzeko	50.000
- Merkataritza sustatzeko	30.000

Mugikortasuna

75.000 euro bideratuko dira bi proiektu gauzatzeko:

- Urazandiko auzotarrentzako autobus zerbitzua obrak iraun artean. Pedro Mugarutzan eta Erretxindin ere egingo ditu geldialdiak.
- Mugi txartelarekin bonifikazioak Sigma eta Altzolako auzotarrentzat.

HERRITARTASUNA

- Euskararen erabilera sustatzeko planak	45.000
- Elgoibarko Izarra	130.000
- Haur eta nerabeen aisia eskaintza hobetzeko diagnosis	18.000
- Gazteen partaidetza eta Udalarekiko harremana hobetzeko ekintzak	45.000
- Berdintasuna	78.000
- Herriko Antzokiko aldagelak eta bukile magnetikoa	55.000
- Kirol Patronatuarentzako transferentzia	640.000
- Gizarte Zerbitzuen zorroa indartzea	
- Adikzioen II. plana	

ANTOLAKUNTZA

- Partaidetza eta parte hartzeko formazioa	225.000
- Webgunea berritzea	15.000
- Bizikidetzak	25.000
- Aurrekontuak ulergarriagoak egiteko aldaketak	
- Lagunkoia proiektua indartuko da	



Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia

DANOBATGROUP

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi lagunentzako 360%ko esperientzia gastronomikoa Basque Culinary Center-en eskutik.

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html>

*Parte hartzeiko azken eguna: 2019ko abenduak 2, 00:00



DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.



ETORRI ETA BISITA GAITZAZU, KALITATEZKO ENUNAK TOPATUKO DITUZU!

NEGUKO ETXEKO ARROPEN BILDUMA BERRIA!

Franela, koralina eta kotoizko maindireak, Sherpa ohe-estalkiak, umeentzako maindireak...

QUALITY eta KOL nordikoetan %25eko deskontua lortuko duzu.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

ehbildu

Sentsazio "gazi-gozoek" dituztela esan dute EHBildutik.

Gozoa, politika egiteko modua aldatzen ari delako eta "halabeharrez bada ere", EAJ modu horretara egokitu beharko dela aurreikusten dutelako, eta gazia, ikusten dutelako "erosotasunetik irtetea" kostatzen ari zaiela jeltzaleei. Aurrekontuak onartzeko "presaka" ibili izana egotzi diote EAJri, eta beste alderdiek aurkeztutako emendakinei buruz "serioski" hitz egiteko interesik ez izatea: "Prozesua hasi eta buka, 22 egun, 2020ko aurrekontuak onartzeko. Iaz azkar ibili zineten, baina aurten, marka guztiak hautsi dituzue", salatu dute. Guztira, 22 emendakin aurkeztu dizkio EHBilduk aurrekontu-proposamenari, eta zehaztu dute guztira eskatu dituzten aldaketen balorazio ekonomikoa 598.000 eurokoa izan dela (aurrekontuaren %3,18).

Aurrekontu parte hartzaileen inguruan, Altzolan esperientzia pilotu baterako 50.000 euro bideratzea eskatu zuten, baina ez diete onartu. "Diskriminazio moduan ikus daitezkeela iritzi dio EAJk". Kultur arloan hiru ekimenetarako diru-partidak proposatu zituzten EHBildutik: 10.000 euro, herriko kultur dinamikaren inguruko gogoeta sustatzeko, 75.000 euro arlo ezberdinetako laguntza programa sortzeko eta 3.000 euro Herriko Antzokian bukale magnetikoa jartzeko, entzumen arazoak dituzten pertsonen zarata arazo larriak izan ez dituzaten. Azken hori onartu diotelako pozik agertu da Bildu, baina Aita Agirren horren beharrik baden ikusteko eskatu du. Herriko kultur dinamikaren inguruko gogoeta sustatzeko egindako proposamenaren arabera, berriz, esan du EAJtik erantzun diotela Udalak Kultur Kontseilua sortzeko asmoa duela, baina diru partidarik zehaztu gabe, eta ez dute begi onez hartu EHBildun: "Ez bada diruz hornitzen marketin hutsa izango delakoan gaude". Etxebizitzaren alokairuaren inguruan, bi eskaera egin zituzten EHBildutik: gaur gazteentzat diren diru-laguntzak beste kolektibo batzuei ere zabaltzeko (baietza jaso dute, baina zalantza egin dute nola gauzatuko ote duen Udalak) eta diru-partida sortzeko hutsik dauden etxebizitzak merkatuan sartzeko edo gutxienez etxe horiek merkaturatzeko zer egin daitekeen aztertzeko. "Hori ez dute ikusi, edo, behar izanez gero, ahaleginak egingo dituztela esan dute".

"Halabeharrez, politika egiteko modu berrira egokitu behar da EAJ, baina erosotasunetik irtetea kostatzen ari zaio"

Gizarte politikaren arloan, batetik, 10.000 euro eskatu zituzten gizarteratze mahaia abian jartzeko, eta bestetik, diru-partida bat sortzea, 65 urtetik gora dituzten eta zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrentzat. "Batetik azaldu ziguten gizarteratze mahaia indartsu hasi zela, baina gero jendeak parte hartzeari utzi ziola. Guk uste dugu beste ahalegin bat egin behar dela. Bigarrenari erantzun zioten AESTik egiten dela hori eta alkatetzak konpromisoa hartzen duela dirua falta bada, jartzeko. Iku-siko dugu nola gauzatzen den".

Bestalde, 50.000 euro eskatu zituzten bertako merkataritza sustatzeko (30.000 euro jartzeko prest agertu da Udala Gobernu). "Bertako merkataritza babesten dela aipatzen da, baina ez da benetako apustua egiten gure ustez, merkataritza zentro handiei baimenak emanez-eta". Auzoetako autobus zerbitzua eta herrian gaikako zakarrontziak jartzeko ere eskatu zuten, bai eta auzoetako beharrak aztertzeko 30.000 euroko partida bat ere. Udaletik erantzun diote herritarrek eskatutako konponketak egiten dituztela eta horren harira aktibo izan beharrean "erreaktibo" izatea egotzi diote. King Kongeko zubiko irisgarritasun arazoei erantzun eta irtenbide bat proposatzeko egindako eskaerari Udalak "partzialki" erantzun diola salatu dute. Azkenik, kritikoa agertu dira Agenda 21 erako aurrekontua 90.000 eurotik 30.000 euroa jaitsi delako. "Ingurumena ez da hauen lehentasunetan sartzen".



Aurrekontuen kontra bozkatu zuen Elkarrekin Podemosek, bi arrazoigatik: "Batetik, aurrekontuak aurkeztu dituzten moduagatik, gardentasun gutxi erakutsi dutelako eta presaka eta korrika onartu dituztelako, eta bestetik, osoko bilkura aurreko batzordeetan eztabaidatu diren gaietarako idatzizko konpromisorik aurkeztu ez dutelako".

Elkarrekin Podemosek esan dute euren alderdiak 11 galdera egin zituela aurrekontu-proposamenean "argi ez zeuden hainbat kontzeptu argitu zitzaten eskatzeko", eta horrez gain, berderatzi proposamen ere aurkeztu zituztela. Proposamen horietako zazpiren aurrean udal gobernuak aldeko jarrera agertu zuela esan dute, baina hala ere, Udalak konpromiso horiek beteko dituen bermerik ez dutenez ikusi, kontra bozkatu zutela osoko bilkuran. "Konpromisoak babestuko dituen idatzia falta da", gehitu dute horren harira. Ondorengo proposamen hauek

"Aurrekontuak gardentasun gutxirekin aurkeztu dituzte, eta presaka eta korrika onartu"

egin zituzten Elkarrekin Podemosek, Evaristo Rodriguez zinegotziak jakinarazi duenez: batetik, merkatu plazan hobekuntza gehiago egiteko eskatu zuten, eta konpromiso finantzarioa eskatu zioten udalari auzoetako jaiak berreskuratzeko. Era berean, indarkeriaren biktima direnentzako laguntzak handitzeko ere eskatu zuten, eta programa ekologikoak gauzatzeko eta indartzeko konpromisoa, bai eta konpromiso horiek bete ahal izateko dirua ere. Bestalde, Udalak, proba moduan Urazandi auzorako martxan jarri nahi duen autobusaren zerbitzua San Roke eta Artetxe auzoetara zabaltzea ere eskatu zuten.

Azkeneko bi eskaeretan aurrekontuak gardentasunez aurkezteko eskatu diote Udalari eta herritarren partaidetzarako izendatutako diru-partida handitzea, elgoibartarrek beren ideal eta proiektuak aurkezteko bidea izan behar dutela arazoituta. "Hala ere, proposamen horiek guztiak horretan geratu dira: proposamenean" jaso dute prentsa-oharrean.

2,7 milioi euroko aurrekontua

Mendaroko udalbatzaren osoko bilkurak onartu du 2020rako aurrekontua, EAJren aldeko botoekin. EHBilduko zinegotziak eta PSE-EEkoa abstenitu egin dira bozketan. Guztira 2.700.000 euroko aurrekontua izango du Udalak.

- AINARA ARGOITIA -

2.700.000 euroko aurrekontua izango du Mendaroko Udalak 2020an, aurtengoa baino %5,34 handiagoa. EHBilduko zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan, bai eta Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotzia ere. Telleriak prentsa ohar bidez arrazoitu du bere erabakia eta esan du Mendaroko Udalak ahal ekonomikoa izan arren, aurkeztu duen aurrekontua ez dela "asmo handikoa" eta ez diela "behar bezala" erantzuten Mendaroren etorkizuneko erronkei. Enetz Ezenarro oposizioburuak bestalde esan du abstentzioarekin aukera bat eman nahi izan dietela gobernuan daudenei, EHBildutik egin dituzten proposamen batzuk aintzat hartu dituztelako, baina ez dutela alde bozkatzeko besteko bermerik ikusi. Diru-partidetan "desoreka handiak" ikusten dituzte eta "eszeptiko" dira: "Ez dugu aukera handirik ikusten diru-partida horiekin gure proposamenak betetzeko. Esan digute partida batzuetan diru gutxi jarri arren osatuko dituztela gero. Hala ere, banaketa horrekin argi erakusten dute lehentasunak zeintzuk diren". Mari Jose Telleriak abstentzioa arrazoi-tzeko emandako argudioak, bestalde, "hutsak" iruditu zaizkio EHBilduri. "Negoziatzeko aukera duenak aurrekontuak asmo handi-koak ez direla esatea ere... Tramiteko gauzak izan ez diren bozketa guztietan abstenitu egin da. EAJk aurrera egin dezan behar duen gu-xtieneko babes hori ematen dio PSE-EEK abstentzioarekin, baina aldi berean, kritika egiten dio".

Sarrerak eta gastuen arteko orekan jarri du azpimarra EAJk eta esan du 2020ko aurrekontuak bidea ematen duela Mendaron au-rreko urteetan hasitako zerbitzuak bermatzeko eta herritarrentzako la-guntza berriak gehitzeko. Horien artean dago, esate baterako, Goñati eraikineko bigarren solairuan eraiki asmo duten gimnasioa. EHBilduren agintalditik dator kontua, baina 2020ko aurrekontuetan kirol eskaintza handitzeko proposamen horri heldu dio EAJk. Era be-rean, Azpilgoetako irigarritasuna hobetzeko proiekturako diru-partida ere zehaztu dute inbertsioen atalean eta baita Eguneko Zentroan ho-bekuntza lanak egitea ere. Diru-partiden inguruan ohartarazpen bat egin du Iñaki Arregi alkateak. Aipatu du partida berriak direnetan diru kantitate txikia zehaztu dutela, "ez delako jakiten zenbatekoak izango diren eskaerak eta beharrak", baina behar diren neurrian osa-tuko dituztela agindu du, aurrekontu arruntaren kasuan, Kreditu Glo-balaren bidez, eta inbertsioen kasuan, 2019ko Diruzaintzako Gerakinarekin.

Nolanahi ere, badira, gorago esandakoez gain, hainbat kontu aipagarri 2020ko aurrekontuetan, horietako zenbait PSEk eta EHBil-duk egindako emendakinetan jasotakoak. Batetik, Mari Jose Telleria sozialistak egindako lau proposamenak kontuan hartu dituzte. Berdin-

2020KO UDAL AURREKONTUAREN LABURPENA

SARRERAK.....

Zuzeneko zergak	501.400
Zeharkako zergak	23.800
Tasak eta bestelako sarrerak	330.700
Transferentzia arruntak	1.792.100
Ondare sarrerak	11.000
Inbertsio errealen salmenta	2.000
Kapital transferentziak	39.000
Aktibo finantzarioak	0
Pasibo finantzarioak	0

Sarrerak guztira 2.700.000

GASTUAK.....

Pertsonal gastua	631.700
Ondare arrunten eta zerbitzu erosketak	1.404.500
Gastu finantzarioak	0
Transferentzia arruntak	141.300
Kreditu globala	67.500
Inbertsio errealak	455.000
Kapital transferentziak	0
Finantza aktiboak	0
Finantza pasiboak	0

Gastuak guztira 2.700.000

tasun Plana eguneratzea, gazteei etxeak alokatzeko diru-laguntzak ematea, herrian lokal komertzialak zabaltzeko diru-laguntzak ematea eta Mendaroko biribilgunean Aitor Etxeberria herriko eskulturagilearen obra bat jartzea proposatu zuen Telleriak, eta denak jaso dituzte au-rrekontuetan. Eta poztu da alderdi sozialista, horiek onartuta sozialis-tek aurkeztutako hauteskunde programaren "zati handi bat" betetzen delako. 30.000 euroko partida onartu dute Aitor Etxeberriaren obra jartzeko, 3.000 eurokoa gazteen emantzipazioa errazteko, 2.500 eurokoa lokal komertzialak zabaltzeko eta 5.000 eurokoa Berdinta-sun Plana sustatzeko.

2020ko TRANSFERENTZIA ETA INBERTSIO NAGUSIAK

Lokal komertzialak zabaltzeko laguntzak.....	2.500
Igogailuak edo irisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak	2.500
Etxebizitzen isolamendua hobetzeko eta Co ₂ emisioak murrizteko diru-laguntzak	2.500
Kirol zerbitzuak (Goñati eraikineko gimnasioa).....	50.000
Etxeak alokatzeko laguntzak gazteentzat	3.000
Eskolako estraeskolarrarako laguntzak errenta txikikoentzat.....	1.500
Informazio prozesuetarako gailuak.....	5.000
Hirigintzako obra txikiak	60.000
Auzoetan hobekuntzak.....	60.000
Azpilgoetako irisgarritasun plana.....	200.000
Brigadako erremintak.....	3.000
Biltegiarako altzairuak.....	10.000
Baliabide energetiko berriztagarriak.....	5.000
Kultur ekipamenduetarako altzairuak.....	2.000
Mendaroko sozioekonomia eta herri identitatea.....	8.000
Aitor Etxeberriaren eskultura biribilgunean.....	30.000
Eguneko zentroko obrak.....	7.000
Berdintasun plana.....	5.000
Nekazaritza eremuetan inbertsioak.....	60.000

AURREKONTUAK, SAILKA**ADMINISTRAZIOA..... 609.000,00****HIRIGINTZA SAILA.....945.000,00****NEKAZARITZA SAILA.....94.500,00****KULTURA SAILA.....595.050,00****GIZARTEGINTZA SAILA.....456.450,00****GUZTIRA..... 2.700.000**

*Udalbarrian, udaleko barne antolakuntza sistema berrian, murgildu da Mendaroko Udala. Sistema horrek udalaren funtzionamendua eraginkorrago egitea bilatzen du, eta horretarako Udala kudeatzeko era aldatzen du. Batetik, urte osoko plangintza eta egutegia zehazten dira, eta bestetik, kompetentzia edo sail guztiak hiru arlo nagusitan batzen dira: Antolakuntza (Administrazio Saila), Lurraldea (Hirigintza eta Nekazaritza sailak) eta Herritartasuna (Kultura eta Gizartegintza). Banaketa horren arabera, aurrekontuaren %38,94 Herritartasuna departamenduak hartzen du, %38,50 Lurraldeak, eta %22,56, Antolakuntzak.

EHBildutik dozena bat proposamen egin zizkieten aurrekontu-proposamenari. Gizarte Zerbitzuen atalean hiru eskaera nagusi egin zituzten: Batetik, etxeetan igogailuak jartzeko diru-laguntzak ematea (2.500 euroko partida onartu dute). Bestetik, errenta txikiko familiei jardura estraeskolarrak ordaintzen laguntzeko diru-laguntzak ematea (1.500 euroko partida izango du), eta hirugarrenik, Mendaroko Etxebizitza Beharren Etengabeko Behatokia sortzea. Mendaroko Udalak onartu berri duen klima aldaketaren kontrako mozioa gauzatzeko ondorengo beste hauek proposatu zituzten: Etxebizitzen isolamendu termikoa bultzatzeko diru-laguntzak, etxebizitzetan CO₂ emisioak murrizteko obrak egiteko diru-laguntzak, baliabide energetiko berriztagarrien azterketa eta planifikazioa egitea subirautea energetikoa lortzeko, lursail komunaletan zuhaitz espezie autoktonozko basoak sortzeko diru-partida sortzea, eta Mendaroko Haurren Hirien Sarean integrazioa, herria "bizigarriagoa" egiteko (Innobasquek, Jaurlaritzak, Solasgunek eta EHUk bultzatu dute, Francesco Tonnuci pedagogoa-ren proposamenean oinarrituta. Funtsean, herria haurren ikuspegiatik

aztertzea eta eraikitzea proposatzen dute, haurrentzat ona dena, gainerakoentzat ona izango delakoan). Atal honetako aurreneko hiru proposamenak hartu dizkiete kontuan eta 2.500 euroko diru-partida eta 5.000 eurokoa esleitu dizkiete, hurrenez hurren.

Herri identitatea suspertzeko ekintzen eta egitasmo sozioekonomikoen artean, berriz, beste hauek proposatu zituzten: Mendaroren Suspertze Sozioekonomikorako plana garatzeko diru partida sortzea, Mendaroko bizkotxoek izan dezaketen bideragarritasun ekonomikoaren azterketa eta marketin eta kudeaketa-plana egiteko diru-partida sortzea, Mendaroren identitate kolektiboaren iraganari, orainari eta etorkizunari lotutako lanak garatzeko bi urtez behingo beka sortzea eta Geoparkearen proiektuaren baitan Mendaroko Izarraitzeko kartaren interpretaziogunea sortzea (Morkaikoren Leizarpe espeleologia taldeak egindako proposamena da, Izarraitze osoko akuiferoa babesteko eta karstari balioa emateko). Azken honetarako 24.000 bat euro beharko zirela aurreikusten zuten Lizarpekoek, baina aurrekontuetan 8.000 euro onartu dituzte atal osorako.

LANA.....

Eskaerak

Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest nago. ☎ 632 893 515

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. ☎ 631 931 030

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat. ☎ 685 724 861/943 748 899

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Titulua daukat. ☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest. ☎ 615 526 482

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 658 273 486

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ 631 795 790

Garbiketak egin eta arropa lisatzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 648 063 061

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 665 528 409

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta gabez lan egiteko prest nago. ☎ 603 346 659

Umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. ☎ 602 047 812

Adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 228 545

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 992 730

Mutil arduratsua naiz eta lan bila nabil. Igeltsertizan edo eraikuntza-lanetan lan egingo nuke, bai eta pintore ere. Adinekoak zaintzeko ere prest nago. ☎ 697 666 992

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. ☎ 683 415 222

Txofer lanetarako prest nago. ☎ 666 009 166

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. ☎ 632 729 261

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest. ☎ 602 850 826

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 632 329 213

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ 671 989 434

Eskaintzak

Esperientzia duen zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 659 539 861

ETXEBIZITZAK.....

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren. ☎ 631 931 030

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 632 452 026

Aukera paregabea! Etxea salgai Eibarren, San Juan kalean. 132m². 4 logela, egongela, sukalde, bi komun. Dena kanpora begira, oso argitsua. 250.000 euro. ☎ 606 591 189

Aukera bikaina! Etxea salgai Zarautzen, hondartzatik gertu. Hiru logela, bi komun, egongela, sukalde, eta komunitateko terraza dutxa eta bista zoragarriekin. ☎ 606 591 189

Etxea salgai San Frantzisko kalean (Maalan bertan). Bi logela, jangela, egongela, komuna eta ganbara. Egoera onean (altzariekin), oso argitsua eta berogailuarekin. 3. solairua. 75m². ☎ 647 209 766

BESTELAKOAK.....

Giltzak aurkitu ditut San Frantzisko kalean, giltzatak gorri batean. Udaltzaingoa laga ditut.

II. URTEURRENA

Antonio Navo Morgado

2017ko azaroaren 29an hil zen, 78 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan, abenduaren 1ean, 12:30ean Garagartzako elizan. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Hiru urte ere ez dituen etxebizitza batean bizi gara, eta behoko aldean oraindik lokalak eta garajeak hutsik daude. Etxearen promotoreak idatzi zituen bere garaian etxearen estatutuak, eta dokumentu horretan jartzen du hutsik dauden lokal eta garajeek ez dituztela ordaindu beharko komunitateko gastuak. Klausula honek promotoreari eragiten dio onura. Jakin nahi nuke klausula hori bertan behera uzterik daukagun, eta ea legezkoa den estatutuak promotoreak berak idaztea.

Legeak ahalbidetzen du edifizioaren jabe bakarrak zehaztea etxe bakoitzari eta lokalei zein garajeei dagozkien partaidetza kuotak, eta baita arau edo estatutuak idaztea eraikinaren instalazio eta zerbitzuen erabilerrari buruz. Ohikoena horrela egitea da. Estatutu horiek baina, ezin dituzte legearen kontrako klausulak jaso, eta legeak argi eta garbi dio jabe bakoitzaren betebeharra dela dagokion partaidetza kuota ordaintzea, edifizioaren mantentze lanak eta zerbitzuak ordaintzeko. Lokal bat eta bi garaje hutsik egoteak eta eraikineko elementu komunak ez erabiltzeak ez du baimentzen horien jabea gastuak ez ordaintzera.

ONDORIOA: Legea betez, eta dagokion denuntzia bideratuz klausula hori baliogabetzeko aukera dago. Denuntzia horrek aurrera eginez gero, atzeratutako gastuak ordaintzea ere eskatu ahal izango zaio promotoreari.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia 12:00ak baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Suhar**, hilaren 26an 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia-koen, eta bereziki, Ekaitzen partez.



Zorionak, **Peru**, azaroaren 27an 6 urte handi bete zenituelako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Malen Egaña**, domekan 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, nire etxeko **printzesei**, hila-bete honetan 8 urte bete dituzulako. Patxo handi bat aitaxo, Moni, Duna eta Manexen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Jon Aranao
Guillermo Torres

**Elgoibar
Albaitaritza**

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larrietatik: 11:00 - 13:00

*Ikasleentzako zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartasako.*

RPS 183112

ELGOIBAR - DEBA San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

➤ Azaroko eskaintza:
Varilux lenteen bigarren pareak opari

**DISFRUTA EL DOBLE CON VARILUX SOLUTIONS
TU 2º PAR DE LENTES PROFESIONALES INCLUIDO**

➤ Azaroko zozketa:
Guess poltsa

Iraileko sariak

EMILIO FERNANDEZ **NORA PARADA** **OIHAN ODRIOZOLA** **AINHOA ALBERDI**

29 BARIKUA

19:00 Hitzaldia: 'Bizitzako irakasleak bezala bizi ditzagun gure seme-alabak'. Nualak antolatuta, Guraso Eskolaren barruan. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian (1. solairuan).

20:30 Antzerkia: 'La casa de la llave'. Tantaka teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

30 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00 Baseriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Sanlo ETK txosna zabalduko du.

Eguerdian, Kale Kantariak.

12:00 Talo tailerra, gaztetxoentzat. Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

10:00-14:00 Bidezko Merkataritzaren denda. Merkatu plaza aurrean.

20:00 Antzerkia: 'Las chirlas'. Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

2 ASTELEHENA

18:30 Zine foruma: 'En tierra de hombres'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

3 MARTITZENA

19:00 Euskaraldiaren aurkezpena. Musika Eskolako auditoriumean.

4 EGUAZTENA

19:00 2020ko egutegiaren aurkezpena eta sari banaketa. Aita Agirreko areto nagusian (1. solairua).

Zinea (Herriko Antzokian)



'La trinchera infinita'
30 zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)

1 domeka: 19:00
2 astelehena: 21:30

'Asto erregea'
1 domeka: 16:30



KONTZERTU EGYNENKO AZOKA

ABENDUAK 7 LARUNBATA

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
29 BARIKUA	30 ZAPATUA	1 DOMEKA	2 ASTELEHENA	3 MARTITZENA	4 EGUAZTENA	5 EGUENA	6 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Garitaonandia	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola (Lehen, Etxeberria)	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gauzez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

KUADRILLA EGUNA

30 ZAPATUA

- 13:00** Mauxitxa txaranga. Klean zehar.
- 13:00** Magoak, klean zehar. Imanol Ituño, Zeroh, lagomago eta Niala.
- 15:00** Bazkaria, Maalako parkean.
- 17:00** Bingoa, Maalan.
- 19:00** Kittu musika taldea, klean zehar.
- 22:30** Ellie Jensen & Xanie Blue, Maalan.
- 23:30** Fan & Go, Maalan.
- 01:00** Emanemak, Maalan.

JUBILATU ETA PENTSIODUNEN ASTEA

29 BARIKUA

10:00 Mufomi fosil eta mineralen museora bisita gidatua Javier Vargasekin. Artetxen.

30 ZAPATUA

10:00 Ibilaldi geologikoa Deba ibaiaren inguruan. Inma Mugertzarekin. Andikanon hasita.

17:00 Sorpresa.

1 DOMEKA

11:30 Hildako jubilatuen aldeko meza. San Bartolome parrokian.

18:00 Dantzaldia, Eguren orkestrarekin. Jubilatuen Biltokian.



ONWA FC187Z HOTZKAILUA

BLACK Friday

Lehen: 369 €

Orain: 279 €

A+ / 185x59, 9x57, 8 zm.
 Kristaleko erretilu egokigarniak.
 Atean balkoi formako hiru erretilu ditu.
 Fruta eta barazkientzako kristalezko kaxoia.
 Barruko temperatura neurtzeko kontrola.
 HIGH CAPACITY kaxoiak dituen izozkailua.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak / Produktuak agortu arte

Indarkeria matxistaren kontra irten dira herritarrak kalera Elgoibarren eta Mendaron

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen astelehenean, azaroaren 25ean, eta horren harira, indarkeria matxistaren kontrako aldarriak hartu zituen kaleak Elgoibarren eta Mendaron.

Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta, indarkeria matxistaren kontrako elkarretaratzea egin zuten hainbat eta hainbat herritarrek astelehenean, Kalegoen plazan. Uluka batukadak jarri zion ekitaldiari soinu banda, eta egun horretarako espreski idatzitako manifestua irakurri ostean, batuka doinu artean egin zuten Kalebarren plazara arteko bidea. Behin hara iritsita, merkatu plaza aurrean, indarkeria matxistak hildako emakumeak zenbartzeko markagailuaren azpian, ekintza sinbolikoa egin zuten kandlekin 2019an hil dituztenak oroitzeko. Gobernu Ordezkaritzaren erregistro ofizialeko datua jasotzen du markagailu horrek, eta horren arabera, 52 emakume hil dituzte aurten Hego Euskal Herrian eta estatu espainiarrean beren bikote edo bikote ohiek. *Feminicios.net* webgunearen arabera, baina, kopuru hori handiagoa da. Izan ere, Gobernu Ordezkaritzaren erregistro ofizialean kontuan hartzeko, beharrezkoa da emakumeek eta haien hiltzaileek harreman sentimentalen bat mantentzea edo noizbait izan izana. Era berean, markagailu horretan ez dira sartzen Ipar Euskal Herrian hildakoak [Hiru emakume hil dituzte].

Mendaron, bestalde, indarkeria matxistaren adiera ezberdinak azaleratu zituzten. Indarkeria psikologikoa, jazarpena, mehatxua, indarkeria fisikoa, etxeko indarkeria nahiz lanekoa, sexu-indarke-



ria, prostituzio behartua, sexu-esklabotza, indarkeria obstetrikoa, esterilizazio behartua, genitalen mutilazioa, indarkeria mediatikoa, instituzionala, emakumeen trafikoa, feminizidioa, haurdunaldi subrogatuak... indarkeria matxistaren aurpegiak dira, eta horiek guztiak bistaratu zituzten astelehenean Mendaron.



Elgoibar



Mendaro

AURKEZPENA!

Urtebete pasa da!
Urtebete falta da!

Esan genuen ez zela urte bateko kontua izango!

2018an norbanakoek bakarrik egin genuen ariketa;
2020an entitateek ere era aktiboan egingo dute.
Asko egin genuen 2018an! Gehiago egin nahi dugu 2020an!

Abenduak 3, asteartea

19:00etan

Musika Eskolako
auditoriumean

Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea

Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Totorc post-it



Eguzkitako betaurrekoak



Gizonezkoentzako produktuak



CD, DVD eta liburuxkak



Aterkiak



Ordulariak



Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA

Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.000 erregalu
baino gehiago...



Manta



Argazki albumak



Izarak



Poltsa



“Altzaporrú”
komiki liburua



Podometroa



Bufanda

... eta opari
gehiago!



Harremanetarako: barren@elgoibarkoizarra.eus edo 943 744 112

ELGOIBAR ILUNETAN

Txankakuak kanpaina bat jarri du abian, herriko merkataritza txikiaren garrantzia aldarrikatzeko.

Herriko merkatariorik herritarrei ikusarazi nahi diegu zein ondorio ekarriko lituzkeen denda txikiak desagertzeak. Kaleak hustu egingo lirateke, argi gutxi izango genuke kaleetan eta segurtasun gabezia handituko litzateke. Finean, kaleko merkataritza txikia desagertzen bada, herria tristetuko da.

Kanpaina honetan, Elgoibarko hainbat sektoretako merkatariek hartuko dute parte, herriko denda txikiek duten egoera zail honekin identifikatuta daudenak.

Dendarik gabeko Elgoibar islatu nahi dugu, eta horretarako, erakusleihoak plastiko beltzez estaliko ditugu. Azaroaren 30ean, larunbata; abenduaren 1ean, igandea; eta abenduaren 2an, astelehena, egingo dugu kanpaina hau. Nahiz eta erakusleihoek denda itxita dagoela irudikatu, dendak irekita egongo dira beren ohiko ordutegian.

Denda txikiek duten egoera zaila islatu nahi dugu honekin: askok itxi egin behar izan dute, eta beste asko ixteko asmotan dabiltza. Horrexegatik, gure helburua da bezeroak gai horren inguruan sentsibilizatzea; izan ere, ez gara konturatzen zer daukagun, hori galdu arte.



Iluminamos juntos

ELGOIBAR

Elkarrekin argitzen dugu

